

BANDOA

BERMEOKO ALKATEAREN AGERRALDIA ALMIKA AUZOAN

Bermeoko alkateak, Idurre Bidegurenak, auzoetako herritarrei Bermeoko Udalaren gestinoaren barri emoteko **agerraldia** egingo dau:

Noz: **martxoaren 24an (barikua)**
Ordua: **arratsaldeko 19:00ean**
Non: **Almikako Aterpetxean**

Bertan azalduko diran gaiak, beste batzuen artean, honeek izango dira:

- Udalaren **gestinoa**, martxan jarritako **proiektuak** eta etorkizunari begira **egin beharrekoak**.

Aitatutako gaiak azaldu ostean, herritarrek euren **eretzia, galderak eta kezak** adierazteko aukerea izango dabe, eta udal gobernuko kideok erantzuna emoten saiatuko gara.

Hitzaldiaren **helburua** da auzoetako Bermeoko Udalaren egoereari eta gestinoari buruzko **informazio zuzena, gardena eta lehen eskukoa** izatea.

Halanda ze, auzotar guztiak gonbidatu nahi doguz agerraldian parte hartzera, Bermeo, gure herria, danon artean eraikitzeko.

Idurre Bideguren Gabantxo
Bermeoko alkatea

Bermeon, 2017ko martxoaren 16an

*Gaztelaniazko bandoa ikusgai dago Gizarte eta Kultura Etxeko iragarki tauletan eta www.bermeo.eus web gunean.

El Bando en castellano puede consultarse en los tablonos de la Casa de Cultura y en la página web www.bermeo.eus